

## Euskal Herria: lehengo ildotik



**Xabier Etxaniz**

Urtero J.M. Torrealdaik *Jakin* aldizkarian egin ohi duen azterketaren arabera, gutxitzen ari omen da euskal haur eta gazte literaturaren produkzioa. Gutxitze horrek argitaratzen diren obren kalitate maila igotzea ekarri beharko luke, bai eta merkatuan dauden hutsunei aurre egingo liekeen argitalpen politika berri bat ere. Tamalez, ez dugu uste une honetan ematen ari diren urratsak norabide horretara zuzendurik daudenik; argitaletxeak lehengo ildotik ari dira lanean.

### Sorkuntzaren gorakada

Egia da Torrealdaik aipaturiko joera hori (merkatua aseturik, liburu gainezka dagoelako, neurri handi batean), baina era berean azken urte honetan —iazko ekainetik aurtengora— euskaraz sorturiko liburu kopuruak gora egin du. Alfaguara-Zubia edo Desclée de Brouwer bezalako argitaletxeak itzulpenetan oinarriturik hasi ziren euskal merkatuan, baina, egun, gero eta euskal idazle gehiago dituzte beren katalogoetan; are gehiago, azken urte honetan sorkuntzak itzulpena baino pisu handiagoa izan du aipaturiko argitaletxeetan.

Bestalde, Aizkorri argitaletxeak, iaz euskal liburugintzari ekin zion argitaletxeak, euskal idazle talde handi baten lanak argitaratu ditu. Juan Kruz Igerabide, Ptxi Zubizarreta, Felipe Juaristi, Pello Añorga, Joxemari Iturralde edo Y. Arrieta idazleek, denon artean ezagunak diren izen bat-



JON SUAREZ, MUNDUA SAGARRAN, DESCLÉE DE BROUWER, 1998.

zuk aipatzearen, Aizkorri argitaletxean plazaratu dituzte beren lanak genero eskaintza zabal batean, antzerkia, poesia, narratiba eta ilustraturiko ipuinak kaleratu dituztelarik.

Horrez gain Euskal Herrian urtetan argitaratzen daramatzaten argitaletxeen artean ere, aipagarria da azken garai honetan Ibaizabal etxeak eginiko lana euskal idazleen obrak plazaratzeko. Alde horretatik Matxinsal-

to bilduma berria sortzeaz gain, gaztetzoei zuzendurik zegoen eta sorkuntz lanak bakarrik biltzen dituen Ekin sailarekin jarraitu dute.

Horrek guztiak, Elkarlanean (lehengo Elkar), Erein, Pamiela, Alberdania, eta antzeko argitaletxeen lanari gehituta, euskal idazleen eskaera handitu du (eta hau idazleentzat onuragarria den neurrian, kaltegarria gerta daiteke kalitatearen ikuspuntutik);



ELENA ODRIOZOLA, TXOKO TXIKI TXUKUNA, ELKARLANEAN, 1998.

honen ondorioz hainbat idazle berrik ikusi dituzte bere lanak argitaraturik lehendabiziko aldiz euskaraz. Horien artean ditugu Txabi Arnal idazle gasteiztarra; *Hogeita bost ipuin motz* ipuin bilduma eta *Rasa «veeka» aritzen zen ardia* ipuina (biak Descléen, 1998) argitaratu dituena lehen aldiz haur eta gazte literaturan; Julen Garikanopeña, hizkera zuzena eta gogorra duen rock and rollaren inguruan erai-

kitako nobela baten egilea: *Sosak, koplak eta rock and rolla* (Elkarlanean, 1998), edo Mikel Arrizabalaga baserri munduaren magia eta giroa errebindikatzen duen ipuin batekin: *Aitona Blas eta iratxoak* (Elkarlanean, 1998). Hauekin batera ditugu lehendik obraren bat edo beste zuten idazleak eta ildo horretan sakondu egin dutenak: Jon Suarezek *Eta Alkatea?* (Desclée, 1998) umore kutsua duen ipuina idatzi du; eta Iñaki Frieria bizkaitarrak abenturazko nobela bi: *Non bizi da Bildur?* eta *Aska itzazue pottokak!* (biak Ibaizabalen, 1998). Azkenik, eskaera egoera honek helduentzat idazten zuten hainbat idazle erakarri ditu haur eta gazte literaturaren esparrura. Gertakari honek, nolabait, haur eta gazte literaturaren heldutasuna eta garrantzia adierazten du. Izan ere gero eta sarriago ematen da. Horrela aipa daitezke Aingeru Epaltzaren *Sorginkerien liburua* (Pamiela, 1998) edo Juan Luis Zabalak idatzitako *Harri barruko bihotz-borrokak* (Elkarlanean, 1999). Lehena abentura eta mitologiaren inguruan eraikitako ipuin bat dugun bitartean, Zabalen ipuinak gazteei zuzendurik daude; parrandak, kale borroka, maitasuna, sexua, politika, adiskidetasuna... gaur egungo gazteen bizitzaren inguruan ematen diren gertakari sozio-politiko horiek biltzen baitituzte Zabalen obra osatzen duten hiru ipuinek.

Baina, zalantzarik gabe, euskal haur eta gazte literaturak aurrera egin dezan lan gehien egin dutenak betiko idazleak izan dira.

### Ipuin ilustratuak

Ipuin ilustratuak diot eta ez albumak azken hauek dituzten ezaugarri batzuk (azal gogorra, ilustrazioaren nagusitasuna testuaren aurrean, neurri handia, eta abar) ez direlako ematen gu-

re artean. Euskal merkatuan txikitetasunak ia-ia ezinezkoa bilakatu du album horien argitalpena, eta euskaraz argitaratzen diren ia guztiak beste hizkuntzetatik itzulitako albumak dira. Zentzu horretan euskal ilustratzaileek koloretan eginiko lan apurrak aipaturiko ipuin ilustratuak liriateke.

Atal honetan aipatu behar lehen Axut sailean zeuden euskal ipuin tradizionalen berrargitalpena. Neurri handiago batean eta ilustrazio batzuk gehituta, Mari sailean plazaratu ditu Elkarlanean argitaletxeak 10 ipuin aukeratu eta zainduak. Irudien bidez argumentua ongi jarraitzeko moduko liburu hauen hizkera ere oso zaindua da, kontatuak edo irakurriak izateko testuak baitira. 1980 hamarkada horren hasieran plazaratu eta geroztik agortuak egon diren altxor txiki hauek gure artean berriro izatea guztiz pozgarria da.

Aizkorri argitaletxeak, bestalde, gure bi idazle handiren ipuinak argitaratu ditu: Juan Kruz Igerabideren *Jonas eta hozkailu*

*beldurtia*, (Aizkorri, 1998) eta Patxi Zubizarretaren *Joanaren erregin aulkia* (Aizkorri, 1998). Igerabideren ipuina Mikel Valverdekin ilustratu du eta bertan Jonasen eta hozkailuaren beldurrekin jolasten du egileak umore kutsuko ipuin gozo batean. Zubizarretak idatzitako ipuina, aldiz, Agurtzane Villatekin ilustratu du eta printze destronatuaren ka-



JOKIN MITXELENA, JIRANBIRAN, AIZKORRI, 1998.

sua dugu... baina arreba nagusia izango da koroa kentzen diona.

Patxi Zubizarretaren beste bi lan ditugu ilustratutako kalitatezko ipuinen artean: *Ostiraletako opila* (Elkarlanean, 1998) Jokin Mitxelenak ilustratuta eta pobrezia, bakardadea, integrazioa... eta adiskidetasuna agertzen zaizkigun narrazio simple baina eraberean landuan; gure ilustratzaile onenatariko baten irudiak bezain adierzkorra den hizkera erabiliz.

*Usoa. Hegan etorritako neskatoa* (Erein, 1999) Patxi Zubizarretak ere idatzia eta Asun Balzolak ilustratutakoa dugu azken ipuina. Itxuraz simplea, baina hizkera poetiko baten bidez gerraren drama, miseria eta adopzioa bezalako kontuak ikustarazten dizkigun ipuin ederra.

### Bilduma berriak

Aurreko urteetan bezala, bilduma berriak plazaratu dira gure merkatuan. Horrela aipatzekoa da Ibaizabal argitaletxeak 8 urtetik gorako neska-mutilentzat eginiko Matxinsalto bilduma berria. Euskaraz sorturiko ipuinak biltzen dituen bilduma honetan Karlos Santisteban, Iñaki Zubeldi edo Aitor Arana ezagunak aurki ditzakegu Julia Otxoaren ondoan. Azken honek, gainera, beste lan bat argitaratu du: *Mundua sagarrean* (Desclée, 1998) eta Seve Callejaren (*Esklabo zoriontsuen uhartea*, Desclée, 1998; *Aitatxo balkoian dago*, Desclée, 1998, eta abar) eta Amado Gómez Ugarteren *Ni eta nire metroa* (Elkarlanean, 1998) lanarekin batera osatzen dute gaztekeraz idatzi baina euskaraz argitaratu duten idazleen produkzioa.

Bambulo (*Lehen urratsak* eta *Krisia*, Atxaga, Erein, 1998) izan da azken urte honetako beste protagonista berria euskal letretan. Ironia eta umorearen bidez Bambulo ikertzaileak historia

berreraikiko du eta gertakarien ikuspegi berria azalduko digu. Atxaga-Valverde bikoteak berriro eskaintzen digu kalitatezko produktu zaindu eta landua, gazte nahiz helduen gustukoa izan eta izango dena.

Azkenik, bada iaz sortu zen hirugarren bilduma bat; Elkarlanean argitaletxeak gazte literaturako klasikoak biltzeko eta euskal irakurleagoari eskaintzeko plazaratu duen Klasikoen kutxa saila. Seve Callejak zuzenduriko bilduma honetan Jules Verne, Charles Dickens, Defoe, Henry W. Longfellow, eta abarren ipuin eta nobelak aurki ditzakegu. Zalantzarik gabe, gure literaturak zuen gabezia bat betetzera datorren bilduma hau oso zaindua dugu, S. Callejak eginiko hitzaurrea da horren adibide bat, eta baita itzulpenen kalitatea ere.

## Narratibaren ugaritasuna

Ohi bezala euskal letretan narratiba dugu genero nagusia. Izan daitezke lan berritzaileak, edo klasikoak, baina kasu ia-ia

guztietan narratiba. Azken hauen artean ditugu Michel Cosemek bildutako euskal ipuin herrikoiak: *Euskal Herriko kondairak* (Ibaizabal, 1998), gure ipuinen bilduma onenatarikoa. Era berean interesgarria da Marijane Minaberryren ipuin bilduma berria, *Marijane konta zan* (Elkarlanean, 1998), hedabide ezberdinetan argitaraturiko ipuin ugari biltzen baititu. Idazle honen lana, gainera, oinarritzakoa dugu euskal haur literaturaren eboluzioa ezagutzeko; bilduma honetan, bestalde, jatorrizko testuak ditugu J.K. Igerabidek eginiko batuerazko aldaeraren ondoan; irakurleak aukera dezan aldaera bat edo beste.

Joxe Arratibelek ere, isilune txiki baten ondoren eta oroimenaren sustraietatik aterata, ipuin, esaera, gertakari, eta antzekoak biltzen dituen *Sorginen urrezko maindirea* (Erein, 1999) liburu interesgarria plazaratu du. Argitalpen zaindua dugu hau ere, idatzizkoaren ardura Miel Anjel Elustondorena izan den bezala, ilustrazioak Jon Zabaletak gozoki eginikoak ditugu.


Abenturazko liburuek, bestalde, garrantzi handia dute gure letretan. A. Kazabonen *Eguzkilore* (Alfaguara-Zubia, 1998) nobela historikoa esaterako, edo Pako Aristik laguntaldean inguruan idatzitako *Benetako lagun aterbea* (Ibaizabal, 1998) nobela dira horietako batzuk. Gauza bera esan dezakegu Mikel Garmendiak idatzitako *Azoreak eta baporeak* (Alfaguara-Zubia, 1998) eta J. Urkixoren *Thule* (Elkarlanean, 1998) nobelen inguruan; biak itsas giroan kokatuak, baina lehena gaur egun gertatzen den bitartean eta nobela inizatiko baten elementuak dituen bitartean (maitasuna eta sexuaren aurkikuntza, arazoaren aurrean heldutasuna, eta abar), *Thule* XIV. mendearen bukaeran dago kokatua. Bestalde, bai batak nahiz besteak irakurtzera animatzen zaituen misterio kutsua dute, ederki idatzita daude, erritmoaren eta denboraren tratamendu egokiarekin, narratzailearen ikuspuntua zainduta... hots, idazle onen aurrean gaudela ikusten dugu.



Eta berdin Anjel Lertxundi

(*Lehorreko koaderno*, Alberdania, 1998), Felipe Juaristi (*Laura eta itsasoa*, Aizkorri, 1998) eta Juan Kruz Igerabide (*Abraham*, Erein, 1998) idazleen lanen aurrean. Anjel Lertxundi, helduentzako idazlan batzuk egin ondoren, gazte literaturara itzultzen da metaliteratura (batik bat abenturazko literatura, eta *Altxor uhartearen eragina* bereziki) duen obra batekin. Barruan altxor baten mapa duen botila baten aurkikuntza dugu abiapuntu nobela landu honetan, egile beraren *Lurak berdinduko nau* (Erein, 1990) gogorarazten digun nobela honetan. F. Juaristi eta J.K. Igerabideren lanak, bestalde, nobela inizatikoak ditugu. Gurasoekin astebete bat oportetara doan neska kasu batean, eta ikasturte osoan zehar eboluzioan jango den Abraham, bestean.

Patxi Zubizarretak *Elur beltza* (Erein, 1999) ipuinean Txomintxo gaztearen ausardia erakusten digu elurte batean laguntza eske jaisten denean herrira. Eta ausardiaz, hainbat konturen artean, aritzen zaigu *Midasen eraztuna* (Erein, 1998) ipuinean ere; animalia ezberdinek kontatuko diguten istorioan. Izan ere zorria, marigorringoa, armiarma, igela eta zikoinak (batak beste jan ondoren) narradorearen papera hartzen baitute gertakariak ikuspuntu ezberdinetatik kontatuz.

Baina, zalantzarik gabe, gari honetan Patxi Zubizarreta idazle emankorraren lanik landuena *Atlas sentimental* (Alberdania, 1998) izan da. Egunkari moduan idatzitako gazte nobela honetan Atlas mendikatearen inguruan istripu bat izan eta, gurasoak mendira doazen bitartean, herri txiki batean bakarrik geratzen den mutiko baten istorioa dugu. Arabiar gizartea, maitasuna, sexua, adiskidetasuna... aurkitzen jango da herri horretan ematen dituen bost egunetan. Idazkera simple eta landuaren bidez, genero eta errekurso ezberdinak era-





biliz, Zubizarretak hain gustu-koa duen mundu arabiarrean sartzen gaitu gazte baten begietatik ikus dezagun. *Atlas sentimental*a euskal haur eta gazte literaturaren kalitatearen froga dugu, eta *Thule* bezala, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren aziertoarena literatura sortzeko bekak ematerakoan.

Itzulpenek ere, nola ez, lagundu dute euskal haur eta gazte literaturaren kalitate hobetze honetan. Estilo eta gai ezberdinetako obrak itzuli izan dira eta bakar batzuk aipatzearen, hona hemen B. Munari eta E. Agostinelliren artean idatzi eta ilustratutako *Txano Gorri*, *Berde*, *Hori*, *Urdin eta Zuri* (Anaya, 1998) Txanogorritxuren hainbat alderatan oinarrituta, edo David Duranen *Nahiago nuke mutila banintz!* (Erein, 1999) neska ala mutila izatearen inguruko nobela gomendagarria, edo M. Garikanok ederki itzultitako John Ruskin idazlearen *Urrezko ibaiaren erregea* (Erein, 1998) lan klasikoa, edo Pennacenen nobelak (*Otsoaren begia*, Ibaizabal, 1999; *Kamoren ihesaldia*, Elkarlanean, 1998), Fina Casalderreyrenak (*Bi malko makinarengatik*, Elkarlanean, 1999; *Euli-hegoak Anxorentzat*, Anaya,

1998; *Ahate pobreen urmaela*, Edebé, 1998), eta abar.

### Beste generoak

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria dugu antzerki lan bat argitaratu duen idazle bakarra. Gazteei zuzendutako bere lanak, *Badago ala ez dago...?* (Aizkorri, 1998), mitologia eta herri literaturaren osagai handia du.

Bestalde, azken urteotako joareri helduz, poesia nahiko egoera onean dago. Horren adibidea ditugu garai honetan plazaratutako hiru liburu: *Kartapazioko poemak* (Ibaizabal, 1998) Igerasoro (Igerabide eta Linazasoro) bikoteak idatzia eta gazteei zuzenduriko poemak biltzen dituen; *Jiran-Biran* (Aizkorri, 1998) Pello Añorgak idatzi eta Jokin Mitxelenak ederki apainduriko poema liburua; eta Joxan Ormazabalek kaleratutako *Txoko txiki txukuna* (Elkarlanean, 1998), poemak, umorezko hiztegia, igarkizunak eta ipuinak biltzen dituen liburu bitxia.

### Zabalkunde eta debatea

Egoera berri honek (ekintza

eta argitalpen ugariarekin, batzuk gainera kalitate handiko obrak direlarik; informazio gehiago eskatzen zaigularik eta esijentzia maila altuagoa ere bai) euskal haur eta gazte literaturan eztabaida edo debate gehiago eta lanaren zabalkunde handiago esijitzen digu.

Euskal Idazleen Elkarteak iaz antolaturiko jardunaldiak, euskal ordezkariaren presentzia OEPLIk Caceresen antolaturiko kongresuan, bibliotekariak urtero antolatzen dituzten ikastarotak, Galtzagorri elkartearen berriantzerak, urrirako idazleen elkarteak eta azarorako Galtzagorri antolatu behar dituzten jardunaldiak... horiek denek lagundu egin behar digute arestian aipaturiko debate eta zabalkunde horretan.

Era berean Haur eta Gazte literatura idazleen katalogo argitaratu berriak, *Kukuluma* aldizkariak, *TK* aldizkari nafarrak eginiko ale monografikoak, edo *Hezkidetzaren aldeko Literatura* izeneko katalogoak baliagarriak gerta dakizkiguke debatan aurrean dugun erronka nagusia aurrera eramateko: gero eta kalitate handiagoko literatura egitea, eta literatura hori zabaltzea. ■



Una historia  
de amor  
desinteresado  
en la que usted  
tiene SU papel

Déle una oportunidad a un niño,  
¡APADRINELO!



**REACH**  
Internacional  
España

REACH trabaja desde 1974  
por los niños más necesitados del tercer mundo.

Avda. Tenor Fleta, 97 - 1º dcha.  
ZARAGOZA - 50008 Tel: 976 412737

Deseo recibir más información sin compromiso

NOMBRE Y APELLIDOS \_\_\_\_\_

DIRECCIÓN \_\_\_\_\_

LOCALIDAD \_\_\_\_\_ C.P. \_\_\_\_\_

PROVINCIA \_\_\_\_\_ TEL. \_\_\_\_\_